

Gorbeia Suzien Mendi Lasterketea nazinoarteko mailan aurten

10. orrialdea

Zeanuriko eskoleak elikadurearen garrantziaz proiektua martxan

Proiektuak janari industrialia gitxitu eta bertako produktu osasungarriak bultzatzeko asmoa dauka, elikadura subiranotasunaren bidetik. Zeanuriko eskolako umeak ogia egiten joan dira Malu Egiluzen obradorera eta eurak egindako ogia salduko dabe sanisidroetan. 12. orrialdea



Arrizabalagak Paradisu zinemak nobelea argitaratu dau

13. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

206

2014ko apirilaren 15a
hamabostekaria
www.begitu.org

Gurutze Gorria gizarte esku-hartzean beharrean

Arratiako Gurutze Gorria 1973. urte inguruan sortu zan eta beti egon da prebentzinozko beharra egiten lasterketa, mendi urtekeretan eta abar. Formakuntzea be emoten dabe, Lehen Laguntza eta Sorospen ikastaroak, besteak beste.

Orain urtebete, lokal barria hartu eben Igorren, eta esku-hartze sozialeko hainbat proiektu barriri ekin deusie. Erronka honeek guztiak aurrera aterateko 30 boluntario inguru dagoz Arratian.

Gizarte esku-hartzeko proiektuak, Mankomunidadeagaz alkarlanean antolatuten ditue. Umeai eskolako

beharrak egiten laguntza emon, familia bako edadekoai bisitak eta gestinoak egiteko laguntzea, egoera ekonomiko larrian dagozanai loteak banandu, jateko biltze kanpainak egin edo etorkinai gaztelaniazko eskolak emotea dira AGGkoak euren gain hartu dabezan programa batzuk. 8. eta 9. orrialdeak



Arratiako Gurutze Gorriako boluntarioak.

ARRATIA

30 kaleratu Negarran

Apirilaren 1ean, Igorreko Negarra enpresek 30 behargin kaleratu ebazan. Enpresa honetan 93 behargin geratzen dira. 2012an 177 lagunek egiten eben behar bertan. Beharginak Epaitegian demanda kolektiboa aurkeztuko dabe.

Incoesan be epaileak enpresek aurkeztutako EEEa baliobakotzea espero dabe. Eusko Jaurlaritzak informea bialdu arte, Bilbon alkarretaraten dira goizero. 5. orrialdea



IGORRE

Kiñu Gaztetxea martxan ipiniko dabe

Bost-sei hilabete honeetan jo eta ke parau barik ibili dira Kiñu Gaztetxean beharrean. Orain arte hau danau egiteko atek zabalik egon dira; baina atek bene-benetan zabalduko eguna heldu jakie, inaugurazino eguna ipinita dauka Kiñu Gaztetxeak. Apirilaren 26an izango da aurkezpen jaia eta egun osoko egitarau prestatu dabe horretarako. Hor ez da amaituko osterera, hurrengo aste osorako be, programea antolatu dabe eta. 5. orrialdea

ARANTZAZU

Bardintasun Plana garatuteko Batzordea sortu dabe

Bardintasun Planeko ekintzak garatuteko, eta bardintasuna ez dala andren kontua eretxita, gizartearena baino, gizonezko bik eta alkateak osotutako batzorde bat sortu dabe Arantzazuko Udalean. Batzordea, Begoña Llano alkateak, EAJ-PNVko Jon Monasteriok eta Bilduko Jon Fernandezek osotzen dabe eta eurak izango dira herrian bardintasuna bultzatzeaz arduratuko diranak. 7. orrialdea

VOGUE ROXY GUESS POLICE GOLF CEBE Strutt V&L Ray-Ban

Varilux kristalen promozio berria

Maiatza amaierara arte!!

Erdu eta galdetu baldintzak!!

ZURE 2. KRISTAL PAREA OPARI

VARILUX

Olaxte OPTIKA ZENTRUA

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)

94 657 70 03 olaxteoptika@hotmail.es

ARRATIA ZURI-BALTZEAN

ARRATIA ZURI-BALTZEAN ATAL BARRIA

Urte bete eta erdiz Igitie baserri-
tar agroekologikoen alkartekoak
bialdu dabez euren artikuluak es-
pazio honetara eta lekukoa beste
batzuei pasetako eta gaia alda-
tzeko momentua heldu da. Le-
kuko hori Arratiako zenbait histo-
riarrik jasoko dabe, eta zuk zeuk
be, gura izan ezker, zergaitik ez!
Arratia zuri-baltzekoa erakutsiko
dozue. Angel Larreak eta Iñaki Es-

parzak idatziko dabe sail honetan
beste batzuen artean.

Arratia zuri-baltzean atalean,
zuri-baltzeko argazkiak eta Arra-
tiako antxinako kontuak daukie
euren espazioa. Arratiako me-
moriaren zatitxo bat ageriko da
hamabostero hemen eta za-
harrenak bizi izandakoa gogora
ekarriko dabe eta gazteenak ikasi
beste sasoi bateko bizimodua.



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Apirilaren 14tik 21era

Rodriguez Martinez, Igorre, Agirre Lehendakaria 27

Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya, Amorebieta-Etxano.

Apirilaren 22tik 27ra

N. Arrieta Bereciartua, Lemoa, Atutxa Sailburua 1

Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Melero, Amorebieta-Etxano.

Apirilaren 28tik maiatzaren 4ra

Ibarrola, Zeanuri, Arregia kalea 1

Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa, Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Chicote, Kareaga Goikoa 50, Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era

orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara

30 minuturo, azkenengoa 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik
behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era

orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta

20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15

eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,

14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15

eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40,

16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau

eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioarrik ez dago.

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia eta Irati Urien.

Maketazinoa: Iñigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Azibar Sagarna eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.800 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Bediako Udalak modu legalean jokatu dau ala txapuzaz txapuza?

Pentsaiko dozue Bediako errotonden gainean nabilela berbetan, izan eitekean, oraindino be proiektu honek bediatarro izugarizko eragozpenak eta arazoak eragiten deuskuz eta. Baina ez, oraingoan peoi lanetarako lan-boltsea eratzeko udalak egin barri dituan azterketari buruzko hainbaten desadostasuna ekartera nator:

-Udalaren helburua lan boltsa honegaz langabezian dagozanai lehentasun osoa emotea zan, baina azterketa teorikoari zein praktikoari langabezian egoteari baino balore handiagoa emon jako. Beraz benetakoa helburua zein izan da?

-Banandu ziran azterketa teorikoak gaztelerazkoak izan ziran bakarrik, euskaldunon eskubideak urratuz.

-Matematika azterketea egiteko kalkulagailuaren erabilera onartu eben, nahiz eta lehenago horren abisurik ez eben emon, eta kalkulagailurik eroan ez ebenentzat desbentaja nabaria izan zan.

-Azterketa praktikoa, aztertzailak ez ziran kapaz izan banatzeko azterketea egin behar ebenak egin barri ebenengandik eta beraz jente askok azterketea egin aurretik azterketea ezagutu ahal izan eban. Ikuste baino ez dago ordura arte puntuazio

zerrendan erdiko eta beheko aldean egozanak zelan egin eben gora.

-Azterketa praktikoko aztertzaileriko bat udal mantenurako langile bat izan zan; hau da, azterketa hau gaudituko ebanaren lankidea, bediartzarron ezaguna beinke. Ondino gehiago, batzuen hurreko laguna eta beste batzuen barriz, ez. Zelan sinistu ez dala egon faboritismorik?

-Aldizkari ofizialean euskerearen ezagupenak 10 puntu balio ebala esan arren 5 baino ez deusiego kitu. Akats ederra hau be!

-Hainbat keja zuzendu jako udalari azterketa honen kontra eta oraindino be, hilabete eta erdi beranduago, keja honek ez dabe idatzizko erantzunik jaso. Eta halanda be Udalak, lotsa gixi erakutsiz, ez dau prozesua geratu eta kontratazioak gauzatu ditu.

Udalak osoko bilkuran Bilduri onartu eutsan gauza asko ez zirala ondo egin baina ebatzi eban ez zirala azterketea bertan behera ixteko adinakoak eta hurrengorako kontuan hartuko zituala gauzak hobetuteko. Erantzun hau ez da bape be zintzoa batetik, langabezian dagoan jentearentzat hau ez dalako txantxetarako gaia eta bestetik, txapuza honek emoten daualako udalari gustau jakon emoitzea lortu dabela alkatearen senitarteko batek lortu dau lanpostua eta, eta hau holan izan ez balitz, neure erebrian, azterketea errepikatuko eben.

Hau guztiau jakinda, zeuek epaitu Bediako Udalak modu legalean jokatu dauan ala ez.

OLATE ARRARTE ETXEBERRIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, berrikut eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Kukurumio



Artzainek ardi-esnea batzean dabenean, kukurumio egiten dabe. Hau da, hankak tolesturik, makurtuta, edo orpoen gainean dagozala (kukurumio, agoskatuta). Arratian beste era honetara be esaten da berba hau: kukurumio, kukurumilo eta, umeen artean, kukulumio. Batuaz, kokoriko eta pikotxean erabilten dira. Azkenik, "kukurumio ibiltea" zerari esaten jako: hankak apur bat tolestuta eta lepoa makur eginda oinez ibiltea, agure gogaituen antzera.

ERETXIA

Memoria Historikoa eta iraganaren itzala



MIKEL DIEGO
Historialaria

Azten asteotan, ikusi dogu hedabideak, sailak, erreportajeak edo monografikoak eskeini deusiezala Memoria Historikoari. Hori dana, hein handi baten, pasa dan apirilaren 1ean Francok irratitik Gerra Zibilaren amaiera aditzera emon ebala 75 urte bete ziralako izan da. Baina zer da Memoria Historikoa eta zein da bere garrantzia?

Memoria Historikoa gizarte zientzietako kontzeptu bat da, Pierre Nora historialariak artikulau ebana eta "gizarteak euren iraganagaz lotzeako daukiezan moduak" legez ulertuten ebana. Definizio hau, baina, ez dator bat, gure gizartean Memoria Historikoak esan gura dauanagaz.

Gizarte bat bere hurreko iraganari begiratuten hasten danean, batez be diktadurearen atzen urteai, konturatuten da alde ilun bat dagoala eta hor mantentidu gura dala, ahanzturan, gerra eta gerra osteko errepresinoa. Hau da historiak "ikusiezin bihurtutea" deitu dauana, eta horren kontra bakarrik Memoria Historikoa berreskuratuz egin daikete burruka.

Memoria Historikoa berreskuratzea ezinbestekoa da arrazoi birengaitik. Lehenengo arrazoia, iragana bere osotasunean ezagutzeko eskubidea da, baita traba egiten daben momentuak be, edo ikuslearen sentikortasunari min egin ahal deusienak. Bigarrena, iragan hori ezagutzeko betebehara da, batez be eskubideak urratzen diran kasuetan, bestela ahaztua edo ukatua izateko arriskua dago eta.

Memoria Historikoaren berreskurapena, Egia, Justizia eta Ordainaren bidez lortzean da. Hiru kontzeptu honek abstraktuak izan arren, oso ondo erakusten ditue zeintzuk diran emon beharreko pausuak. Lehenengoa, benetan

gertatutakoa jakiteko premina da. Bigarrenak, errepresinogileak zigortu ahal izateko legedia aldatzeko beharri egiten deutso erreferentzia. Atzena, baina ez horregaitik garrantzia gitxiagokoa, biktimai errekonozimentua emon eta sufridutako kaltearen ordaina emoteko ahalegina egitea da.

Bat baino gehiago dira arrazoiak herritarrok animau beharko gindukiezanak Memoria Historikoaren berreskurapenean parte hartzean; kasurako, eskubideen urraketea sufridu eben personak enpatia edo kalidade demokratikoa, Memoria Historikoaren berreskurapenean parte ez hartzeak zigorgabetasunaren euskari egingo gindukez eta. Baina batez be, giza eskubideen errespetu kontu batagaitik.

Horregaitik konbidau gura dodaz danak Memoria Historikoaren berreskurapenerako alkarteren batera hurreratzera, edozeinetara, edo egiten diran ekintzetan parte hartzera. Ez bakarrik gerra eta diktaduran errepresinoa sufridu ebenak ikusiezin ez bihurtzen prozesuari laguntasuna emoten deusgulako, baita gizarte hobe bat eregiten lagunduten dogulako be.

**Erredakzinoan itzulia*

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Erreturak
Batzen gaitu

MONDRAGON

LUMATUTEN



UNAI SANTOS

Bueltan datoz


Zalantza barik *revival* garaia bizi doguz euskal musikagintzearen munduan. Izan be, 80 eta 90eko hamarkadan ezagun egin ziran musika talde askok eta askok barriro eszenatoki gainera bueltetea ebatzi dabe atzen urteotan. Zerrendea luzea da: Zarama, Latzen, EH Sukarra, Sen, Piperrak, Gozategi, Urtz, Kashbad... Batzuk epe zehatz baterako bueltetan dira, beste batzuk, barriz, gelditzeko; batzuk bakarrik zuzenekoak eskeintzeko datoz, beste batzuk disko barria dakarre besapean. Urrun joan barik gurean be adibide argi bat daukagu Dima aldean. Izan be, 90eko hamarkadan ezagun egin zan "The Impresentables" taldeak gitarrai hautsa kentzea ebatzi eban orain dala gitxi, eta seguru, askok poz-pez hartu eban notizia izan dala.

Hata guzti be, urte askoren ondoren barriro alkatzea ebazten daben taldeen aurrean irakurketa edo eretxi bi

egon daitezke. Bata negatiboa: talde honeek diruagaitik bakarrik bueltetan dirala. Bestea positiboa: gaur egun oraindino be publikoari benetan zerbaist eskeintzeko deuseelako. Edoze lan be, beti legez, gauzak ez dira zuriak edo baltzak izan behar, eta itzulera bakotxaren atzean gris koloreko mila arrazoi egon daitezke. Motibazino materialista hutsa eta asmo zintzoen artean, ni bigarrenagaz gelditzen naz. Izan be, gurea lango herri txiker-eta musika industria txikerrago baten- diru gosearen kontua aita-tzea ez da oso errealista. Ez dogu ahaztu behar, musikaz asko dakien batzuek aspaldi esaten eban moduan, "rock and rollak ez dau sekula dirurik emon Euskal Herrian".

Kontuak kontu, niretzat behintzat gure ume eta gaztetxo denopretako taldeen itzulerea beti izango da poztetia. Garai bateko gure idolo eta erreferente izan ziranak, urte gehiagotik eta ule gitxiagotik bada be, ondo etorriak izango dira. Bueltan datoz eta oilo ipurdia jartzen euskuen abestiak barriro zuzenean entzuteko aukera emongo deuskue. Aprobetxau daigun.

ZERTZEAN



IKER YURREBASO

Behatz puntetan zain

Behatz puntak loditzen ari zaizkizu metalaren kontaktuak azkar erre dezake

Eskuak gogortuz doazkizu sokaren lehentasunak erraz mindu lezake

Ileak urdinduko zaizkizu bihar ala berandu eta gu hemen...

...begira, zerbaiten zain beste nonork egin dezan gure esku dagoena

Ohar gaitzen gu garenaz hartu arnas, egin salto sarea luzaroan ehundu da hor behean guretzako

* Aneika Ara taldearentzako kantu baterako egindako letrea.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eredu ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

AMEk antolatutako desfilean, udabarriko moda eta atzen tententzien barri jakiteko irrikaz egoan jentteagaz bete egin zan Lasarte Areato. Igorreko pasarelan, arratiarrak udabari honetan eroango dabean erropea eta osagarriak erakutsi ebezan bertako modeloak.

Igorre ez da Milan edo Paris, ezta beharrik be. Jentteak ondo pasau eta zer erosi pentsau baeban Igorreko pasareleak bete eban bere helburua. Dana dala, bide luzeak egiteko lehenengotik pausu bat emon behar da eta pausu batzuk emon ebezan pasarelan gure modeloak. Akaso, euren artean etorkizuneko Gisele Bundchen edo Sean O'Pry egozan. Duda barik, modaren munduan exotikoak litzatekez arratiar jatorriko abizenak.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Uribe Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bilakaia
T. 94 631 50 39
Kalegoria Zirkulara 101
R.P.S. 21/06

FISIOTERAPIA Grupo Sasobide
Balneario Areatza

Tania Fernandez Santiago
COL. 1718

www.gruposasobide.com Tel.: 94 657 54 50

LEMOA

Ikur faxistak dituen pintadak agertu dira Lemoatxen



Panela ikur faxistakaz.

Erredakzinoa

Lemoatxeko lubakien gaineko informazioa eskeintzen daben paneletan pintadak agertu ziran ikur faxistakaz martiaren 29an. Panel informatibo honeek Lemoatx 1937k Lemoako Udalagaz batera ipini zituan igaz. Eurretan Lemoatxen gertatutakoa kontetan zan. Pintada honeek, Lemoatx 1937, memoria historikoa errekueretako batzorde herrikoiak, sinbologia frankistearen inguruko eskuorria herrian banandu eta egun gixira agertu ziran.

Lemoan sinbologia frankistea kentzeako mozinoa 1992an onartu bazan be, ez zan adostutakoa ejekutau eta gaur egun ondino sinbolo frankista askok diraue herrian. Hori dala eta, igaz, Lemoatx 1937 batzordeak herriko sinbolo frankistak behingoz erretiretako deia egin eutsan udalari eta txosten bat aurkeztu eban. Mozino hau be onartu zan aurtengo urtailan eta hori "aurrera eroateko" asmoa daukala udalak esan eban Aitor Erauzkin zinegotziak martiaren 27an, Lemoatx 1937 batzordeak antolatutako sinbologia frankistearen gaineko berbaldiaren ostean.

Aurtengo aurrekontuak onartu ez badira be, igazko aurrekontuetan be, diru partidea badagoala memoria historikoa errekueretako esan eban.

Ikerketak

Mikel Diego historialari eta Lemoatx 1937 batzordeko partaideak azaldu ebazan Lemoan dagozan sinbolo frankisten gainean egindako ikerketen ondorioak. "Informazio piloa dago Lemoatxeko kurutzearen gainean, baina baita hutsune asko be. Lemoako artxiboaren zati bat galdu izanak ez dau lagundu eta orain arte, ez da jakiterik egon zenbat aldiz aldatu dan kurutzea" esan eban Diegok.

Lemoatxeko tontorrean, 1956an San Antolin ermita barria egiteko proiektuaren dokumentua eskuratu dabe batzordekoak. Ermita barria, kurutzea eta kriptat bat egiteko proiektua zan. Gaur egungo ermita eta kurutzea proiektu horregaz egindakoak ete diran ez da argitu. Holan balitz, kriptat bat be egongo litzateke, inguruetatik jaso eta bertan mila gorpu lurperatzeko helburua eukana. Mila gorpu horreek non dagozan misterioa da ondino.

IGORRE

Gaztetxearen aurkezpena

Irati Urien

2013ko urri bigarrenaren 16 goizean okupau zan Igorreko Kiñu Gaztetxea. Bost-sei hilabete honeetan parau barik ibili dira bertako zein inguruetatoko gazteak beharrean. Garbitu, egoerea formalizetako jaubeagaz berba egin, hormak pintau, Facebook zein Twitter kontuak sortu, kartelgintza ereduak ikasi, kanpoko bedartzea atondu, frutu-arbolak landatu, gura izan dauanari erakutsi, logoa egin, aratusteetan karrozea antolatu, Agate Deuna egunean kantau, sukaldea partadaztu, tabernako barrea egin... goiz eta arrasti gogotsu, ilusinoagaz. Orain arte hau danau egiteko atea zabalik egon dira; baina atea bene-benetan zabalduetako eguna heldu jakie, in-augurazino eguna ipinita dauka Kiñu Gaztetxea. Apirilaren 26an izango da aurkezpen jaia, egun osoko egitarau prestatu dabe. Hor ez da amaituko ostera. Ondo hasteko asmoagaz, hurrengo aste osorako programea



Kiñukoak antolatutako ekintzak.

be antolatu dabe, orduan bai benetan martxan hasteko. "Bariadadeagaz hasi gura genduan, etorkizunean egin leitekezan ekintzen bariadade bate-

gaz", dino Illart Gumuzio Gaztetxeako kideak. Gaztearen esanetan, ointxe arte lez oindino bertan egon ez dan edonor konbidauta dago gura dauanako.

BEDIA

Incoesakoak Bilbora eroan ditue euren aldarrikapenak

Erredakzinoa

Goizeko bederatzietatik ordu bata eta erdira arte, Eusko Jaurilaritzako Bilboko egoitzaren aurrean egoten dira Incoesako beharginak enpresek aurkeztutako espedientearen konsulta epealdia akordio barik amaitu zanetik. Hilaren 4an, arratiarrai deitu eutseen euren solidaridadea agertzeko eta han batu ziran Incoesakokaz batera, Arratiako hainbat gizarte eragile, familiakoak eta lagunak

beharginai babesa emoteko होनेen agerraldian.

Eusko Jaurilaritzak epaileari informea emon arte, jarraituko ebela Jaurilaritzaren aurrean alkarretartzen azaldu eutsan BEGITURI Ariane Elejabarrieta LAB sindikatukoak. "Gu hemen gagoz esaten EEEda ez dala egokia, ez dala kausarik hori aurrera eroateko, bideragarria dala Incoesa Bedian bertan mantentzea eta horregaitik Eusko Jaurilaritzaren aurrean egongo gara informea urten arte. Informe hori epaitegira

joango da eta epailea izango da erabakitzen dauana".

Maiatzak 1, Arratian

Langileen egunean, martxea antolatu dabe LABekoak Bedia eta Lemoaren artean, Arratiako etorkizunaren egoera larria salatutako.



Langileak Bilbon.

IGORRE

Hogeta hamar kaleratu Negarran

Erredakzinoa

Apirilaren 1ean, Igorreko Negarra enpresek 30 behargin kaleratu ebazan; tartean, enpresa batzordeko bostak. Orain, CCOOek salutatukoaren arabera, 93 behargin geratzen dira Negarran. 2012an 177 lagunek egiten eben behar bertan, plantillea % 52 murriztu da, beraz.

Ez da hau izan, Enplegu Espediente baten bitartez, 30 behargin kaleratu dituan lehenengo aldia. Izan be, 2012an enpresek 59 langile kaleratzeko espedienteak aurkeztu eban eta laudo bat onartu zan, eta atzenean 30 kaleratze egon ziran.

2013ko apirilean, barriz, enpresek 9 behargin itxi zituan kalean, "harrezkerotzik, tantaka-tantaka

segidu dau beharginak kalera tzen, gaur egungo 123 beharginera ailegau arte" salatuten dau CCOOek. Orain, 93 behargin baino ez dira geratu.

Epailearen esku

Beharginak epaitegian demanda kolektiboa aurkeztuko dabela azaldu deutso BEGITURI Alvaro Ruiz CCOO sindikatukoak, "kaleratze



Negarra.

honeetarako arrazoirik ez dagoala eta egoera ekonomikoa ez dala enpresek dinoan bezain txarra

uste dogulako". Kalean geratu dan behargin bakotzak be demanda bat aurkeztuko dau.

LEMOA

Juan Mari Atutxak helegitea aurkeztuko dau Estrasburgon**Erredakzioa**

Juan Maria Atutxak eta Gorka Knörrer, bagila aldera Giza Eskubideen Europako Auzitegian helegitea aurkeztuko dabela emon eben jakitera apirilaren 2an. Han, orain 11 urte Sozialista Abertzaleak desegiteko agindua ez betetearren "deliturik" ez ebela egin defendiduko dabe. Legebiltzarraren "duintasuna" erre-kuperetako aurkeztuko dabela helegite hau esan eben prensurrean, Europako Parlamentuaren egoizan.

Batasunaren ilegalizazioaren ondorioz, SA (Sozialista Abertzaleak) desegiteko agindu eutsan Eusko

Legebiltzarrari Espainiako Auzitegi Gorenak. Legebiltzarreko Mahaiko orduko presidentea zan Atutxak, idazkaria zan Knörrer eta bigarren idazkaria zan Kontxi Bilbaok, uko egin eutsien obeditzeari Gorenaren agindua, Legebiltzarraren araudiaren kontrako zala argudiatuta. Auzitegi Gorenak Juan Mari Atutxari urte bete eta erdiko desgaitzua zigorra eta 18.000 euroko isuna ipini eutsan eta Knörreri eta Bilbaori urtebeteko desgaitzua eta 12.000 euroko isuna.

Manos Limpias-en akusazioak eroan zituan auzitegira orduko Legebiltzarreko Mahaikoak.

DIMA

**Dimakoak ateratako argazkia.****Domeketan giza katerako metroak erosi daitezke plazan****Erredakzioa**

Arratiari 99. kilometroa jagoko, Uharte Arakilen, bagilaren 8an ebazteko eskubidearen alde Iruñea eta Durango bitartean egingo dan giza katean. Bertara ahalik eta jente gehien joan daiten, domekero jasoko dabez jentearen atxikimenduak eta metroak erosi ahal izango dira Dimako plazan.

"Gure Esku Dago inizatibegaz bat eginez, inizatibegaz bat egiten daben guztiai eskua emon eta aurrera egiteko prest gagoz, Dimatik hasita Euskal Herri osora-

ino" dinoe Diman inizatibiegaz bat egin dabenak.

Mobimentu hau ezagutzera emoteko ekintzen artean, maiatzaren 10ean egingo dan jai dago. Egun osoko jai izango da eta talde argazkia egingo dabe bertan.

Areatzan be metro salmenta egiten dabe. Maiatzaren 4an eta 25ean, arrastiko zazpiretatik, zortzi t'erdia arte Areatzako plazan egongo dira metroak erosi, Areatzako adierazpena sinatu, kamisetak erosi edo autobusean apuntau daiten jentea.

LEMOA

Udalak desfibrilagailuak ipini ditu herrian**Erredakzioa**

Lemoako Udalak 3 desfibrilagailu automatiko ipini ditu udal kiroldegian, futbol zelaian eta udaltzaingoaren autoan. Desfibrilagailu honeek ipintez gainera, udalak prestakuntza plan bat ipini dau martxan eta bertan udal langileak eta alkarteak hartu dabe parte.

Udalaren ustetan, sano garrantzitsua da egoera larrian egon daitezkezan personak salbau daitezkezan teknologia herritik zehar izatea. Baita herriko jenteak honetarako formakuntzea izatea be, emergentziako egoerai aurre egiteko.

B Safe enpresako DOC desfibrilagailuak dira herrian ipini diranak.

BEDIA

2014rako kontuak onartu ditu Udalak**Erredakzioa**

2014ko ekitaldirako Bediako 1.111.413 euroko aurrekontua eukiko dau, 2013koa baino % 1,5 handiagoa, udal tasa eta zergarik igo barik. Ludotekea eta Gaztetxokoa egiteko obretarako 155.326 euro aurrekusten ditu. Enpresak langabezian dagozan bediartzarrak kontratau dagiezan; hau da, bizilagunen kontratazioa diruz lagunduteko eta sustatzeko 25.000 euroko diru partidea dago.

Udal iturrien arabera, Bediako Udalak "diruzaintza saneauta dauka; izan be, 11.444 euroko zor txikia baino ez dauka udal-kutxagaz".

Aurrekontuak 31.533 euro daukaz euskera erabili eta sustatzeko ekintzetarako eta 92.266 hainbat kultur jardueretarako; hau da ikastaroetarako eta udal-eku, txiki txoko eta Uda Gaztea ekimeneko tallerretarako. Herriko jaietarako 26.000 euro dagoz.

Aurrekontuak 5.000 euro daukaz Bardintasun Sailerako.

BEDIA

Amaitu dira Lekubaso errekearen gaineko zubia barriztuteko beharrak**Erredakzioa**

Bediako Eroso-Ugarte auzuneak Usansologaz muga egiten dauan puntuko zubia barriztuteko beharrak amaituta, oinezkoak barriro be erabili daikie hilabete eta erdiz zarratuta egon dan Ibaizabal errekearen ondoko pasealeku hau.

Bediako Udalak salatu dau beharrak amaitu eta gitxira ekintza bandaliko txikiak izan dirala azpiegiturearen kontra; "izan be, nonork apurtu eta ostu egin dauz konpondu barri dan bidetik ibilgailuen joan-etorriak saihesteko ipinitako egurrezko gontzai eusten eutsezan giltzarrapoak".

IGORRE

Euskera irakastetik elikadura burujabetasun aldeko apustura**Erredakzioa**

Espe Kaltzada dimoztarrak, hogei urte baino gehiago euskera eta kultura munduan ibilbide profesionala egin ostean, euskal produktuetako denda bat ipini dau Igorren.

Bertan, bakarrik Euskal Herrian ekoiztutako produktuak saltzean dira. Batez be, jatekoak, baina artisautza eta euskal jantziak be bai.

Martianaren 28an zabaldu eben dendea eta jenteak ondo erantzun dauala dino Kaltzadak. Dendearen filosofia saltzeatik harago doala dino jaubeak. "Niretzako euskera irakastea beti izan da komunidadeari emon deusadan zerbitzu bat, eta argi neukan autoenplegurako hautua egin ezke-ro, herriaren aldeko zeozer egin ziran eta horreen artean nagusitu zan gure elikagaien aldeko

hautua. Elikadurearen burujabetasunaren bidetik, gure ekoizleak eta gure produktuak sustatzeko".

Igitiegaz alkarlanean

Igitie Arratiako Nekazari Agroekologikoen alkarlagaz behar egin gura dau Kaltzadak eta, kasurako, Igitieko partaide batek egiten dauan pasta ekologikoa saltzean da dendan. Alkarlan horren beste emoitza bat da, denda honek konsumo taldeen batzeako puntu izateko helburua daukala.

Euskal jantziak

Arratian euskal jantziak erosteko dendarik ez egoala konturatuta, horreek be saltzea pentsau eban dimoztarrak eta honeek be herrera ona euki dabela bezeroen aldetik dino. "Mungiatik ekarri doguz, Trapu Zaharra dendatik eta orain arte sano erantzun ona izan dogu".

**Dendearen argazkia.**

KIRRU • ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bago - 48140 IGORRE (Bizkaia)
• 94 631 92 06

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a • 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-49-54

SESOREAK
basolo Emaldi
Abokatuak
• 620. 57.86.04
• asierbasolo@hotmail.com
• Bilbao-Zeanuri

Los Chopos
neurri egindako armairuak
Avda. Los Chopos, 33 (Nagar) Tel.: 94 430 40 94
Esposizioa eta fabrikea Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Baimonak: A1, A, BTP, B
Lehendakari Agirre 31
Telefono: 94 633 75 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@evokah.net

ARANTZAZU

Bardintasun Batzordea sortu dabe Arantzazun

Erredakzioa

Batzordea alkateak berak eta beste zinegotzi bik osotuten dabe, biak gizonetakoak: EAJ-PNVko Jon Monasteriok eta Bilduko Roberto Fernandezek, hain zuzen be. Bardintasuna ez dala andren kontua eretxita, gizartearena baino, hartu eban ebatzi hori udalbatzak. Batzordea, Bardintasun Planeko ekintzak garatuteaz arduratuko da. Arantzazuko Bardintasun Plana 2012an egin bazan be, udalbatzatik pasau barik egon da 2014ko martira arte. "Dana dala, plana 2012tik egon gara garatuten" dino Begoña Llano Arantzazuko alkateak. Plenora eroaterakoan, ordura arte egindakoa errepasau eben eta Bilduk Plana baloretako urtean-urtean udalbatza bat egitea proposatu eban. "Orduan

beste pausu bat aurrera emoteko momentua zala, pentsau neban" dino alkateak, eta Planeko ekintzak aurrera eroateko, gizonetakoak osotutako Bardintasun Batzorde bat egitea proposatu eban. Proposamena onartu egin zan.

Llanoren ustez, inportantea da gizonak ikusi dagiela "ze gatxa dan bardintasuna bultzatzea". Ardura hori eukiteak bardintasunaren aldeko burrukan gizonak gehiago inpliketako be balioko dauala uste dau alkateak.

Jaietan andrazkoen partaidea

Jaietako Batzordea be hasi da batzean eta bertan egongo dira Bardintasun Batzordekoak. Orain arte, lehiaketetako epaimahaietan edota aisialdiko taldeetako begiraleen artean andrazkoak egon eitezan egin dabe behar udaletik. Hemendik aurrera, andrazkoen ekarpenak beste arlo batzuetan be begi bistan ipintea gura dabe Arantzazun eta batzordekoak saiatuko dira beste arlo batzuetan be bermatzen andren presentzia: herri kiroletan, frontoian edota kontzertuak edo berbenak jotzen daben musika taldeetan, kasurako.



Arantzazu.

ARRATIA

Energiaren hilabetea

Erredakzioa

Igorre Bizirik-ek eta Areatzako Kirol Kultur Batzordeak aprilan energiaren inguruko berbaldiak antolatu ditue, energiaren hilabetea ekimenaren barruan. Lehenengo hamabostaldian frackingaren gaineko berbaldi bat egon zan eta Goiener energia kooperatibearen aurkezpena egin zan. Hamabostaldi honetan, berbaldi bat egongo da goi tensinoko linearen barri emoteko eta *Oligopoly* dokumentala ikusteko aukerea be egongo da.

Hilaren 24an, 19:00etan, Urkuzuko txokotan da lehenen-

go hitzordua. 2011ko martiaren 25ean, Igorreko Udalak Bizkaiko Gobernuaren ordezkariordetzan, goi-tensinoko linearen kontrako herritarren alegazioak aurkeztu ebazan. Alegazinoak Alex Marañon abokatuak prestau zituan eta 382 herritar eta alkartek sinatu ebazan. Zeberio, Bedia, Igorre eta Lemoatik pasauko da Gueñes eta Itsaso arteko goi-tensinoko linea. Industria eta Energia Ministeritzak proiektuaren tramitazioagaz aurrera egiten dihardue.

Aprilaren 30ean, barriz, *Oligopoly* dokumentala ikusteko aukerea egongo da Igorreko Kiñu Gaztetxean.

ARRATIA

Arratiako Alderdikide Eguna



Erredakzioa

Maiatzaren 3an, Arratiako Alderdikide Eguna 2014 ospatuko dau EAJ-PNVk Igorreko Beheko Plazan. Umeentzako puzgarriak, mitina, alderdikideen bazkaria eta musikea ez dira faltauko. Bazkari-rako tiketak Arratia eta Zeberioko Batzokietan edo Bilbon Aberri Eguneko txosnetan erosi daitezke eta izena emoteko atzen eguna hilaren 28a da.

Egitaraua

- 10:00etan, puzgarriak umeentzat.
- 12:00etan, mitina.
- 13:00etan, poteoa trikitilariakaz.
- 14:30ean, alderdikide bazkaria.
- 17:00etan, giroa alaitzeko musika taldea.
- 19:30ean, musikea jaiia amaitu arte.

ZEANURI

Batzen praktikak egiteko ikastaroa Zulaibarren

Erredakzioa

Zulaibar Lanbide Ikastegian 300 orduko trokelgile doitzalea ikastaroa egiteko izena emon daiteke maiatzaren 15era arte. Ikastaroaren ondoren ikasleak praktikak egingo dabez Batzen, eta enpresek ikasleen % 60a kontratauko dau.

Ikastaro hau egiteko, fabrikazino mekanikako produkzioaren programatzean edo mekanizazio bidezko produkzioan Goi Mailako Zikloa euki behar da eginda, edo bestela, Mekanika Erramintako Lanbide Heziketa II.



Zulaibarreko ikasle bat.

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
Zabalik 07:00 - 19:00

ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaja)



KÄRCHER
Banatzaile ofiziala









• Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
• Garraio zerbitzua.

GURUTZE GORRIA

Arratiako Gurutze Gorria hazten eta zabaltzen

Juan Mari Aizarnak Arratiako Gurutze Gorriako (AGG) presidentearen eretxian, Arratiako asanbleari heldu jakon momentu bat "arre edo iso" egitekoa. Aurrera egitea ebatzi eben eta Igorreko Lehendakari Agirre kalean lokal bat hartu, esku-hartze teknikari bat kontratau eta fase barri bateri ekin eutsen. Gaur egun, kirol eta ikuskizunetako prebentziozko beharrez gainera, formazinoa emon eta gizartean egoera hauskorrean dagozanai lagunduteko hainbat programa ateraten ditue aurrera. Atzen honeek Arratiako Udalen Mankomunidadeagaz alkarlanean egiten ditue. Zerbitzu eta programok aurrera aterateko 30 boluntario aktibo inguru eta soldatapeko behargin 2 dagoz. Anbulantzia bat eta ibilgailu egokitu bat be badaukie. Eta 202 bazkide.



90eko hamarkadako Gurutze Gorriako boluntarioak.

Erredakzinoa

Arratiako Gurutze Gorria 1973. urte inguruan sortu zan. Hasikeran Gurutze Gorria militarra zan eta lehenengo "alferez lanetan Alberto, gero Mentxakatorre, Bustinza eta azkenik Jon Gaztelu aritu ziran. Presidente ziran baina Gurutze Gorria militarra zanez alferez izena emoten jakon presidenteari" azaldu deutsie BEGITURI AGGkoak. 1986an, izakera

militarretik izakera zibilera pasetako estatutu barriak egin ziran. Juan Bizente Iriondo izan zan lehenengo presidentea Arratiako Asanblean. "Sartu nintzanean Gurutze Gorriak izen txarra eukan. Ez egoan ez ambulanziarik ez ezer, eta diru aldetik be oso txarto egoan" gogoratu dau Iriondok. Bera presidentea zala, lehenengo konzientzia-objetoreak agertu ziran bertan.

Gurutze Gorriaren beharrik eza-

gunena kirol eta kultura ekitaldi handietan prebentziozko lana da. Lasterketetan, mendi martxetan edo futbol partiduetan, besteak beste, gitxienez ambulantzia bat egon behar izaten da, kirolariren bateri zeozer gertatu ezker ospitalera eroan ahal izateko. Urte askotan, hau izan da AGGren lan nagusia, formakuntzako ikastaroak batera. Gaur egun, horrezaz gainera, gizarte esku-hartzean be lan handia egiten

dabe boluntario honeek. Izan be, igazko martian, Agirre Lehendakaria kalean lokal hartu eta urrian, gizarte esku hartzeko programak aurrera aterateko Idoia Zuloaga Martinez teknikaria kontratau eben. Orain, bost programa daukie martxan eta beste bi hasteko.

Umeai eskolako lanak egiten lagunduten

Igorre eta Lemoako eskoletan, Gurutze Gorriako boluntarioak, 8 eta 10 urte bitarteko umeai eskolako lanak egiten lagunduten deutsee. Programea Arratiako eskola guztietan eskeini arren, bi honeetan bakarrik ikusi ebela horren premina dino Idoia Zuloagak. "Proiektu honen helburua eskolako errefortzua emotea da. Umeakaz meriendau, eskolako lanak egin eta gero olgau egiten dogu. Olgetak baloreak landuteko izaten dira: errespetua, gizarteratze ereduak, eta abar". Hogetabat umek eta sei edo zazpi boluntariok hartzean dabe parte proiektu honetan.

Edadekoentzako laguntzea

Bizitzaren beste muturrean dagozanak be nahiko egoera hauskorrean dagoz askotan eta honeekaz be egiten dabe behar Arratiako Gurutze Gorriakoak. Holan, Eguneko Zentroko erabiltzaileak eroaten dabez bertara euren ibilgailu egokituan. Goizeko 08:00etatik 10:00etara, txanda bitan. Txanda bakotxean zazpi persona eroaten dabez. Etxerako buelta 18:00etatik 20:00etara izaten da.

Eguneko Zentroko, zein Arratia egoitzako egoiliarren batek gestinoren bat egiteko laguntza behar badau, -medikuarenera joateko, bankura edo erosketak egiteko, berbarako- Gurutze Gorriako boluntarioak lagunduten dabe gestino hori egiten. "Momentuz, 20-25 bat egin doguz, bai erresidentziako egoiliarrakaz, bai Eguneko Zentroko erabiltzaileakaz, bai Tokiko Hurbiltasuna programako erabiltzaileakaz" dino Zuloagak.

Tokiko Hurbiltasuna programak, barriz, gehienbat bakarrik bizi diran persona nagusai eta elbarrituak edo laguntza sare sozial eskasa eta arazo sozialak dituen kolektiboak dago zuzenduta. Programa honen bitartez, ohiko informazinoa eta telefonoz jarraipena eskeintzen jakie. Momentu honetan 10 persona erabilten dabe programa hau. Hamabostean behin dei bat egiten jakie erabiltzaileak. Hau be bolunta-

1986an Gurutze

Gorriaren izakerea, militarra izatetik zibila izatera pasau zan

946.319.008
658.195.091

Sartu eta ikusi!

GALANTA
zure barruko arropa

M. JOSE
barrutik janzen zaitu

Agirre Lehendakaria 23
48.140 Igorre
galanta@hotmail.es

www.facebook.com/galantakalea

HERRIKO BENTA

HOSTAL

HERRIKO PLAZA
48142 ARTEA (BIZKALA)
Tel. 94 631 72 56

Olaetxe
OPTIKA ZENTRUA

- Graduazinoak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gibatua
- Begiko tentsinoa
- Lentillen adaptazinoa
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkala)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

rioak eroaten dabe aurrera. Zelan dagozan eta ea ezer behar daben itauntzen jakie. "Ez dagozala baka-rik sentiduteko da eta asko eskertzen dabe. Boluntarioentzako oso lan polita da, erabiltzaileak asko eskertzen dabelako dei hori" dino Zuloagak. Martitzenetan boluntario bi egoten dira behar hori egiten. Informazioa emoteko be aprobe-tzetan dabe deiak, besteak beste, gripearen aurkako kanpaina edo bero-alerten barri emoteko.

Dimako Arratiako erresidentzian bizi diranai eta familiarik ez daukienai be bisitak egiten deuseez Gurutze Gorriako boluntarioak.

Beste programa batzuk

Arratiako Gurutze Gorriak hitzarmena dauka Mankomunidadeagaz eta alkarlan handia egiten dabe edozein kausagaitik egoera larrian dagozan personai lagunduteko. Izan be, bertako Gizarte Zerbitzuak jakinarazoten deutse askotan nork daukan programa edo zerbitzu baten beharra. Eta Gurutze Gorriakoak emon egiten dabe persona horri jagokon zerbitzua. Gaia hain delikaua izanda, eurek be ez dabela informazio askorik jasoten preminan dagozanen gainean, eta holan izan behar dauala uste dau Zuloagak "erakunde biren artean informazio hain konfidentziala erabiltea oso peligrrosoa da eta" dino.

Holan, esate baterako egoera larrian dagozan familiak, kutxa ba-

tzuk emoten jakiez. Loteok, ume txikientzako janaria (esnea eta poteko janaria), pixoihalak, eta abar izaten ditue. Badagoz beste lote batzuk, oraintsu hasi diranak emoten, etxea eta norbera garbitzeko produktuak dituenak be.

Kalean dagoan jenteari emoteko loteak be badagoz baina, zorionez, Arratian bi baino ez dira emon. "Kanpoan edo txabola baten lo egiten dabenai emoteko dira: lozakua, jakea, mantak, kaltzetinak, toallak, jertsea... Igaz lote bi banandu ziran" dino Aizarnak. Jasotzaile biak Arratiakoak ziran.

Abenduaren 13 eta 14an, kanpaina bat egin zan, jatekoa batu eta bananduteko. Nori emon Mankomunidadeagaz kudeatu zan. 1.800 kilo jateko batu ziran kanpaina honetan eta Arratiako 54 familiaren artean banandu ziran jatekook.

Etorkinai gaztelera eskolak

Proiektu barrien artean, etorkinai gaztelerezko eskolak emoten has-tea dago. Proiektuak Alkarbizitza Kultur Tailerra izena dauka eta kanpotik etorritakoak hizkuntza era praktikoko baten, eguneroko beharretarako, ikasten laguntzea dauka helburu. Proiektu horren barruan Euskal Herria ezagutzeko urtekerak dagoz. "Gu Arratiatik hasiko gara, Arratian oso inguru politak dagoz eta" dino Zuloagak. Programa horren barruan "bikote linguistikoa" deitzean dana dago. Atzerritar bat




mediku naturalista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elikagai biologikoak
zeliakoentzat elikagaiak
estelziena

Zamakoak, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igarre
94 631 14 39



618 59 81 71

Pintura lanak
Iturgintza
Instalazio elektrikoak (aberiak)
lehoi eta ateen konponketa
Pertsiana konponketa
Igeltzerotza
E-posta:boxpalboxpal@yahoo.es



ibalgane, S. Coop. Ltda.

Estazioa, 15
48330 LEMDA (Bakoa)
Tels. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15



Langabetan O Jabetzen!

Barrio Ugarana 2. et. - 48101 Oñate - (Bakoa) www.aramoto.com



Abel Lapatza Iza
Taxi zerbitzua 24 ordu
Dima
946 317 252
608 287 249

Arratiako Gurutze Gorria

Presidentea: Juan Mari Aizarna.

Gizarte esku-hartze teknikaria: Idoia Zuloaga.

Helbidea: Agirre Lehendakaria kalea 27, behesolairua. Igarre.

Telefonoa: 94 673 62 62.

Ordutegia: 10:00etatik 14:30era, astelehen, martitzen eta barikuetan. 16:00etatik 18:30era, eguzten eta eguenetan.

202 bazkide.

30 boluntario aktibo momentu honetan.

Anbulantzia bat.

Ibilgailu egokitu bat.



hemengo persona batez gertzen da, kafe bat hartzeako, partidu bat ikusteko edo gura dabena egiteko, eta atzerriko gaztelania erabilten hasten da. "Honek zentzu bat emoten deutso gaztelania ikasteari. Bai pareja horregaz egiteko, bai bizimodu normala egiteko. Hizkuntza beharra topatzeko eta bizimodu normala egiteko ikasi behar da".

Alkarbizitza Kultur Tailerra Lemoan egingo dabe, Lemoako udalak itxitako lokaletan. Proiektua aurrera eramateko esperientziadun boluntarioak daukiez.

Gaur egun,
prebentzinozko
beharrez gainera, gizarte
esku-hartzean be egiten
dau behar, Arratiako
Mankomunidadeagaz
alkarlanean

Formakuntzea

Bilboko Gurutze Gorriak formakuntza ikastaro asko dauka, Arratiakoak ez hainbeste. Dana dala, Arratia mailako Lehen Laguntza eta Sorospen ikastaroa 2010ean emon eben lehenengo eta jarraituten dabe formakuntza hau emoten. Izan be, ikastaro honeen helburua "ikastaroa egiten dabenak gugaz geratzea da, prebentzinozko beharrak egiten" dino Aizarnak.

Arratiako futbol entrenatzaileak be emoten deuseez ikastaroak Gurutze Gorriakoak eta Lemoan ipini barri dabezan desfribiladoreak erabilteko ikastaroak be eurak emongo dabez.

BOLA JOKOA

Bizkaiko txapelketea hileon

Erredakzioa

Apirilaren 12an Banakako Bizkaiko Bola Txapelketea jokatu zan Bernagoitian (Zornotza). Irabazlea San Migel (Zornotza) taldeko Ismael Manzanedo izan zan. Lehenengo



Komarkaleko irudia.

arratiarra Ibon Manzanedo Lemoako Bola Taldeko kidea izan zan laugarren eginda. Obako Juan Mari Aurtenetxe "Txirpu" k seigarren egin eban eta Juanan Manzanedo Lemoakoak zortzigarren. Taldekako Bizkaiko finala hilaren 26an izango da.

Ondoren, eskualdekoa jokatuten jarraituko dabe Arratiakoak, beste hiru botaldi gehiago.

Momenturarte, denporaldirik onena egiten dabilena Lemoako taldea da, laugarren da eta. Dimako Oba zortzigarren dago eta Igorreko San Kristobal bederatzigarren talde sailkapenean.

FUTBOLA

Arratia bosgarren

Ainhoa Duñabeitia

Denporaldia amaitu dabe andrazkoak eta Arratia bosgarren postuan geratu da. Tolosan jokatu eben atzen partidua hilaren 13an eta Arratiak galdu egin eban 1 eta 0. Aurreko domekan, hilaren 6an, atzenaurreko partidua jokatu eben Hernaniren kontra. Partidu honetan ez zan golik egin, husna amaitu eben partidua. Orain Euskal Kopa jokatuko dabe. Lehenengo neurketea Pauldarren kontra izango da Urbietan maiatzean, eguna oraindino konfirmetako dago.

Gizonen lehenengo taldea be bosgarren dago

Gizonezkoen lehen taldekoak,

atzen partidua bietan puntuak eskuratu egin dabez eta bosgarren postuan jarraituten dabe. Hilaren 5ean jokatu eben neurketan hiru puntuak eroan ebezan Mungiarri irabazi ostean. Partidu bikaina arratiarrak jokatu ebena. Hilaren 12an, barriz, bardinketea lortu eben Trapagararen aurka husna bardinduta. Hurrengo norgehi-gokea etxean jokatuko dabe Araguren aurka.

Gizonezkoen bigarren taldeak, atzen norgehiagoka biak irabazi ditu. Hilaren 5ean etetik kanpo jokatu eben, Ermuan hain zuzen be. Partiduko hiru puntuak lortu ebezan Ermuako Anaitasunari huts eta bi irabazi ostean. Atzen norgehiagokea etxean izan eben Zalduaren aurka. Partidua galtzean hasi eben baina arin nagusitu ziran arratiarrak. Atzen emoitzea, Arratia B 4 - Zaldua 2. Hurrengo norgehiagokea Lemoaberriren aurka izango da.

MENDI LASTERKETEAK

Gorbeia Suzien Mendi Lasterketea prestatzen hasita dagoz honezkero

Barrikuntzakaz eta inoz baino indartsuago dator Gorbeia Suzien Mendi Lasterketea.

Irati Urien

Lehenengo edizioa, Euskal Kopako atzenengo proba izan zan; Euskal Herriko Txapelketea igaz, eta aurten Euskal Kopako atzenengo proba izatetik aparte International Skyrunning Federation-ek (ISF) antolatzen dauan 2014ko Skyrunner National Championship (ISF) lasterketako proba izango da. Proba hau nazioarteko mailan kokatzen da, izan be, Andorra, Portugal eta Espainiako estadien artean antolatzen dira Skyrunner Championship eta Skyrunner National Series probetako lasterketak.

Sano salto handia emon dau lasterketeak eta horrek antolakuntzan exijentzia maila altuagoa suposatuko dauala adierazo dabe Suzien Mendi Klubekoak. Tartean behar izango dan diru kopurua be handiagoa izango da, eta honen harira aitatutekoa da aurten babesle nagusi bat aukeratu dauala karrereak: Banco Mediolanum. Honeekaz hitzarmena eginda daukie lasterketarako eta Gorbeia Suzien Banco Mediolanum Sari Nagusia izango da aurtengoa.

Euskal Herriko Mendi Lasterketetako Selekzinoko korrikalariak Zeanurin

Apirilaren 12an Mendi Lasterketetako Selekzinoko korrikalariak joan ziran Zeanurira. Goizean urte honetako Gorbeia Suzien lasterke-

tearen ibilbide posiblea ezagutu eben. Suzien Mendi Klubekoak bazkaldu ostean aurkezpenak etorri ziran. Batetik, Euskal Selekzinoko kide barri bi aurkeztu ebezan, Uxo Irigoien eta Dabid Garcia "Txiki". Eta bestetik korrikalariak erabiliko

daben Ternuako ekipazino barria jantzi eben. Bertan egon ziran Leire Agirrezabala, Aritz Egea, Iñaki Uribe-Etxebarria, Iban Letamendia, Eneko Allende selekzionadorea eta Oihana Azkorbebeitia korrikalaria eta selekzionadorea be bai.



Euskal Herriko Mendi Lasterketetako Selekzinoko kideak.



Selekzinoko kideak eta ibilbidea egin ebenak.

Oparitu BEGITU-lagun!

* Deitu 649 979 115 telefonora

Egizu zure laguna BEGITUREN harpidedun eta otzara bete kultura oparituko deutzazu.

- 6 liburu: Arratia Inguruko Hiztegia, Ortozik, Ametz, Peru Tximaluze, Haizea aurpegiaren eta Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak.
- Arratia, Ubide eta Zeberiko argazki zaharren postal bildumea
- Luis Iruarizaga Abesbatzaren 25. urtemugako CDa

HAU DANAU JASOKO DAU BEGITU-LAGUN BARRIAK OPARI DOTORE HAU EGIN EZKERO

35€, 55€
edo 75
Euroren truke



ERRUGBIA

Denporaldia amaitu dabe Zekorrak

Ainhoa Duñabeitia

Arratiko Zekorrak bosgarren postuan amaitu dabe aurtengo errugbi denporaldia. Martiaren 29an izan zan atzen norgehiagokea; baina partidua bertan behera itxi behar izan eben lesinoak dirala eta. Zortzi partidu jokatu dabez, zazpi galdu eta atzenengo hau ez aurkeztu moduan geratu zan.

Lesino asko izan dabez zekorrak atzen hilabete honetan eta,

igoera faseko norgehiagoketan ezin izan dabe ehuneko ehuna erakutsi. Dana dala, jokariak dinoe entrenetan jarraituko dabela datorren urtean denporaldi ederra egiteko. "Horretarako jentearen laguntzearen beharra" daukie, taldea indartzeko eta jokari gehiago batzeako "hain justu ez ibilteko". Hori dala eta, Arratiko Zekorrak taldekoak deia egiten deutse rugbyra jokatuten interesatuta dagozanai.



Arratiko Zekorrak taldea.

FUTBOLA

I. Alebin Harrobi Futbol Klub Txapelketea Lemoan

Lemoako Harrobi Futbol Klubak kimuentzako txapelketea antolatu dau, hilaren 26an Arlonagusia futbol zelaian.

Erredakzioa

Txapelketak egun osoa hartuko dau. Izan be, goizeko bederatzit'erdietan hasiko dira ligaxka partiduak, finalaurrekoak bostetan, hirugarren eta laugarren postuak seiretan jokatuko dira, finala zazpiretan eta sariak zortziretan bananduko dira.

Kategoria honetan 11-12 urte bitarteko umeak jokatuten dabe eta guztira 12 taldek hartuko dabe parte. "170 ume inguru eta Euskal Herriko talderik potentee-netarikoak egongo dira bertan, baita Aragoiko Zaragoza be" azaldu deutso BEGITUri Alex Maguregi antolatzailleak. Arabatik, Alaves, Ariznabarra eta Aurrera Vitoria taldeak egongo dira; Bizkaitik,



Kartela.

Athletic Club, Baskonia, Danok Ba, Otxandioko Vulcano eta Le-

moako Harrobi. Gipuzkoatik, Antiguoko eta Eibar, eta Nafarroatik, Osasuna.

Harrobik maila honetako talde bi ditu eta txapelketan talde bietako "nahasketa" bat aterako da zelaira.

Kluba egonkortzen doa

Txapelketa hau antolatuteko arrazioa, etorkizunaren alde egitea dala dinoe Harrobitik. "Ume eta gazteen futbolearen ikusten dogulako etorkizuna klub egonkor bat egiteko, eta benetan aberasgarria dalako klub osoarentzat eta baita herria eta herriko jentearentzat be. Momentuz adin honetako txapelketa hau indartu gura dogu, urtero-urtero handituz joan daiten".

Harrobik guztira 10 talde daukaz: 3 futbol eskolan, benjaminetan 2, alebinetan 2, infantiletan 1, kadeteetan 1 eta jubentiletan neska talde bat.

www.begitu.org

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com



Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Eskalduna, kalitatekoa, herrikoa

Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igoerre
Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 45 Faxa: 94 673 90 45 Artea
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
I. Zubizarreta HI Tel.: 94 673 40 22 Faxa: 94 673 40 22 Igoerre
Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
J.B. Eguskiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Mour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igoerreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igoerre Bizkaia

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

PROIEKTUA

Zeanuriko eskoleak elikadurearen garrantzia irakasteko proiektu bat ipini dau martxan

Proiektua elikadura burujabetasunaren ildotik doa, eta janari industrialak gitxitu eta bertako produktu osasungarriak bultzatzeko asmoa dauka. Orain 20 urte, inork gitxi jaten ebala moldeko ogi industrialak eta gaur egun ikaragarri zabaldu dala ogi hori umeen meriendetan komentetan dau Jabi Lamadrid Zeanuriko Eskolako zuzendariak.

Erredakzioa

Gaur egungo jateko ohiturakaz kezkatuta, besoak zabalik hartu eban klaustroak Txoko Sagarnako Malu Egiluzek umeai ogia eta pastak egiten irakasteko proiektua.

Bosgarren eta seigarren mailako umeak Lanbrebera (Zeanuri) joaten dira hiruzpalau bat egunetan, gero etxera eroango dabezan ogia, madalenak eta pastak egitera.

"Boltsatxo ez dabe soltetan, harro egin dabenagaz" dino Lamadri-dek. "Ogia egiteaz aparte landuten dogu nondik datorren uruna, ze ogi jaten dogun..." dino Egiluzek. Izan be, honen ustez, nahiz eta Zeanuri herria izan, eta askoren gurasoak zein aitita-amamak baserrikoak izan, "umeak urrunduta dagoz" janaria ekoizteko prozesuetatik eta honeetara hurreratzea eta garrantzia emotea ezinbestekotzat

joten dabe proiektuaren bultzatzaileak eta eskolakoak.

San Isidro azokan saldu

Bertan produziduteaz gainera, eta zikloa zarratuteko, bertako merkaduetan saltzea —eta erostea— garrantzia handikoa dala ikasiko dabe Zeanuriko eskolako umeak. Horretarako, ikasleak eurak egindako ogia, pastak edo beste jatekoak salduko dabez San Isidro egunean, eta jasotako diruagaz eskolako materiala erosiko dabe. Eskolea Ikas-komunitatean txertatuta dago eta herriak, irakasleak, ikasleak eta familiak helburu komun batez batuko dira: San Isidro egunean, ikasleak ekoiztutako zerbaist saltzeako, eta holan jatekoak zelan heltzean jakuzan prozesu osoa ikusteko aukerea izango dabe.

Elikadura burujabetasuna

Ekintza honek, baina, ez daukie

helburutzat gauza gozoak egiten ikastea eta dirutxo bat lortzea bakarrik, helburuak harago doaz. Malu Egiluz mundu osoan elikadura burujabetasunaren alde egiten dauan Via Campesinako partaide da. "Multinazionalak interes handia daukie munduko elikadurareaz negoziarioa egiteko. Negozio itzela da. Atzen finean, munduko persona guztiok jan egin behar dogu biziteko". Eta negoziario honek

gitxi batzuentzat diru iturri handia bada be, gehienai kalte handiak ekarten deutsez. Osasun arazo handiak tartean. "Janari industrialak azukre eta gantz asko eukiten dau eta Estatu Batuetan, pobreen artean, gazte askok diabetisa edo obesidadea sufriduten dabe" eta hemen be holan izango dala dinoe janari industrialak zabaltzen jarraitu ezker. Horregaitik bertako produktuen alde egin gura dabe eskolatik hasita. "Euskal Herrian jaten dogunaren % 5 produziduten dogu, beste guztia kanpotik ekarten da" eta bidean jatekoak bitaminak, nutrienteak eta zapoak galtzean dabezala dino proiektu honen bultzatzaileak.

Munduan, jatekoak punta bate-tik bestera ibiltzen dira "elikagaien autopistetan" deritxanetan. Kanarietan ekoiztutako tomateak, adibidez, Holandan saltzean dira, eta Kanarietan Israeletik ekarritakoak jaten dabez.



Umeak ogia eta pastak egiten.



Uruna nondik datorren be ikasi dabe umeak.

IKUSKIZUNA

Gabriel Arestiren arrastoaz hausnartzeko ikuskizuna Igorreko Kultur Etxean

Erredakzioa

Hilaren 27an, Gabriel Aresti Kultura Elkartaren ekimenez, *Gabrielen lekua* izeneko ikuskizuna ikusteko aukerea izango da Igorreko Kultur Etxean arrastiko 19:30ean. Gabriel Aresti jaio zanetik 80 urte bete ziran 2013an eta bere personea, pentsamentua eta lana gaur egunera ekarteko *Gabrielen lekua* ikuskizuna sortu eben hainbat sortzailek.

Horreetako batzuk, Andoni Egaña bertolaria, Oier Guillan poeta eta antzerkigilea, Rafa Rueda musikaria, Alain Urrutia irudigilea eta Ainhoa Alberdi eta Iraia Elias aktoreak dira.

Arestik gudan ze arrasto itxi dauan ikusteko, ikuskizuna sortzeako orduan, Arestiren gustuko lekuak hartu ditue ardatz. Leku horreek, bere izakerea eta obreen alderirik garrantzitsuenakaz lotzean ditu montaje honek.



Gabrielen lekua ikuskizuna.

ERAKUSKETEAK

Miguel Sanz lemoztarraren erakusketea Igorren

Erredakzioa

Hilaren 25etik, maiatzaren 31ra, Miguel Sanz Etxebarria pinturazale lemoztarraren lanak egongo dira ikusgai Kultur Etxeko erakusketa aretoan. Erakusketa hau boligrafoz egindako marrazkiez eta papel gaineko olio lanez osotuta dago.

Lanak ez daukie ardatz zuzentzaile bat, erakusketan bodegoiak, erretratuak eta paisajeak nahastuten dira. Zinema, Errusia eta edertasuna dira lemoztarrak landuten dituan gai batzuk.



LEHIAKETEAK

Ingurumenaren aldeko argazki lehiaketea Igorren

Erredakzioa

Igorren "Ingurugiroaren parte izan" izeneko argazki lehiaketea antolatu dabe, herritarrengandik ingurumena hobetuteko proposamenak jasoteko. Lehiaketan edozeinek parte hartu ahal dau, igorretarra ez izan arren, baina argazkiak Igorren ateratakoak izan behar dira. Lanak maiatzaren 30era arte aurkeztu daitezke.

Argazkiok testu txiker batez bialduko dira, edozein formato literariotan eta gehienez 80 berbetan, argazkian agertzen dana salatu eta hobetuteko proposamenak egiteko. Partaide bakotxak 5 argazki aurkeztu ahal ditu gehienez, formatu digitalean, Igorreko Udaleko Erregistroan edo Igorreko Kultur Etxean.

Hiru sari

Sariak hiru kategoriatan sailkatuko dira eta bakotxean sari bakarra

egongo da. Umeak kategorian, 7 eta 12 urte bitartekoan, saria 150 euro izango dira; gazteen kategorian, 13 eta 20 urte bitartekoan 330 euro eta helduentzako 600 euroko saria egongo da. Sari guztiak jagokien zerga atxikipena izango dabe.

Sarien banaketea bagilaren 15ean iragarriko da udaleko webgunean.



KULTUR ASTEA

Industriaren kirol parkea



Umeak industriaren kirol parkean.

Erredakzinoa

Lanbideak Igorreko eskolako umeentzat olgeta bihurtu eban Kulkí Kultura Kirola-ko Luisfer Etxebarriak. Umeak pozarren meategi imaginario baten sartu ziran burdina lortu eta gero hau landuteko. Izan be, industriako beharrak irudikatzen olgau ziran hilaren 9an, eskolako kultura astearen barruan.

Ekintzaz betetako hiru egun prestatu ebezan Inazio Zubizarreta eskolan. Puzgarriak, taillerak, bideoak, Gintzak izeneko ikuskizunak, konsumo etikoaren gaineko berbaldiak, antzerkiak, bertsoak eta industriaren kirol parkeak osatu eben egitaraua.

LIBURUA

Aritz Arrizabalaga igorretarraren *Paradisu zinemak* nobelea argitaratu da



Urtzi Barrenetxea eta Aritz Arrizabalaga. Argazkia: Aitor Amez Vera.

Igorreko Kultur Etxean izan zan aurkezpena, apirilaren 4an, eta gelea txiki geratu zan aurkezpenera joandako guztiak hartzeako. Izan be, idazlea igorretarra da, sano ezaguna herrian, eta nobelearen gertaerak Bilbo eta Igorre ditu eszenaleku. Beta argitaletxeak argitaratu dau Arrizabalagaren *Paradisu zinemak* nobelea.

Erredakzinoa

Urtzi Barrenetxeak egin eban egilearen aurkezpena eta idazleak berak liburuarena. Ondoren, liburuak dedikatu eta sinatu eutsen egileak

irakurleai.

Nobela hau egiten hasi zanean, ipuin bat egiteko asmoagaz hasi zala esan eban Arrizabalagak. Izan be, berak batez be ipuinak irakurri eta ipuinak idazten ditu. "Ipuinak

idazten dodaz niretzat genero perfektuagoa dalako nobelea baino, edo hobea behintzat bai". Baina idatzi ahala personajeak sortu zituan eta ipuina izateko luzea izango zala konturatu zan egilea. Personaje nagusia zine proiektista itsua da eta "Hiria" (Bilbo) eta "Herria"ren (Igorre) artean gertatzen da.

Ariketa inkonziante moduan hasi zana, konziante bihurtu zala azaldu eban Arrizabalagak ipuina izateko lar luzea izango zala konturatzean, eta 18 kapitulu egiteko 18 puntuko eskema bat egin eban egileak. Baina lehenengo kapitulu

luan aldaketa batzuk sartu eta bigarrenean, koherentzia mantentzeko, beste aldaketa batzuk egin behar izan zituan, eta honeek hurrengo kapituluetan be eragina izan eben, eskema desitxuratu arte. "Inkonzianteak agintzen dau" ondorioztatu eban igorretarrak.

Julene Azpeitia saria

Aritz Arrizabalaga Filologia eta Antropologia ikasitakoa da eta irakaslea da Lekeition. 2005ean Julene Azpeitia Durangoko Ipuin Lehiaketea irabazi eban eta orain arte, batez be, ipuinak idatzi ditu. "Batzuk konzeptualagoak eta beste batzuk klasikoagoak, personajeak eta" azaldu eban Urtzi Barrenetxeak aurkezpenean. Bigarren motako horreetatik sortu zan *Paradisu zinemak* nobelea. Arrizabalagak BEGITU aldizkariko Zertzean atalean be kolaboretan dau.



Aurkezpenera hurreratutakoak.

Argazkia: Aitor Amez Vera.

DUNBA

David

Zeberioko eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak

Miguel Angel Buonarroti italiar artista ospetsua izan zan. Bere obra guztiak, pinturak, eskulturak eta arkitektura Italiako Errenazimetuagaz lotuta dagoz. Hamasei urte ebazala, bere ama hil eta gero, hasi zan margotuten. Francesco Ghirlandaiok, hamabi urteko umeak, animauta. Aitak, Lodovico Buonarroti ez eban gura semeak margotzerik, baina Miguel Angelek kontra egin eutsan eta margotzen jarraitu eban. Geroago eskulturan jardun eban bere maisu obra batzuk egin eban. David eskultorea, ospetsuen artean dago, eta horixe landu dogu guk, Zeberioko 5. eta 6. mailako ikasleok.

David marmol zuriz egindako es-

kultorea da. 5,17 metro neurtuten dauz oinarria kontuan hartuta eta 5 tona eta piku pisatuten dau. 1501. urtean landu eban Miguel Angelek. 3 urte luze behar izan zituan marmol zurizko munstro hori eregiteko.

Fantiscrittik (Carrara) ekarri eben marmolezko blokea. Hain handia zanez itxasontziz, Arno ibaian zehar eroan behar izan eben Florentziaraino. Bloke bakar horretatik egin eban Miguel Angelek eskultorea.

Bloke hori Simeone Filesole artistarentzat zan, baina ondo urten ez eutsanez bertan itxi eben Florentziako bazter baten Miguel Angelek hartu arte. David eginda egon zanean Piazza de La Signaria aukeratu eben eskultorea kokatzeko.

Lehenengo, gure maisuak Daviden marrazki txiker bat emon euskun, 28 cm neurtuten eban eta gorputza poligonotan banatuta eukan. Danon artean saiatu ginan tamainu erreale-ra pasetako metodoen bila, eta idea asko agertu ziran, baina guk hiru aukeratu genduzan: eskala, proiektoreagaz eta gitxi gorabeherakoa.

reagaz eta gitxi gorabeherakoa.

Eskala moduan: Lehenengo 5,17 m, zentimetrotara pasau ginduzan, orduan, 517 zentimetro dira. Ondoren, 517 zati 28 egin genduzan; 18,4 emoten euskun. Orduan poligonoak neurtu eta angeluak atera genduzan, aldean neurria bider 18,4 egin genduzan, neurri originalera pasetako poligono bakotxa. Gero kortxo zurian egin genduzan.



Zeberioko eskolako umeak egindako David.

Proiektoreagaz: Proiektoreagaz ez genduzan piezak egin baina bai piezaren azpian joango zan plastikoa. Pankartetarako erabilten dan plastiko zati handi bat gimnasioko horman ipini, Daviden marrazkia proiektu genduzan plastikoa eta permanenteagaz pasau.

Horren gainean, eskalan egindako piezak itsatsi ahal izateko.

Gitxi gorabeherakoa: 4 personak



gitxi gorabeherako metodoa erabili eben. Daviden marrazki txikerra emon eutsen maisuak eta eurak handitu egin eben dana. Gitxi gorabeherakoan oinetatik hasi ziran, gero problemak egon ziran ulea sartuten ez zala eta. Baina dana dala oso ondo urten jakien.

Hiru metodoak piezak egin ostean, danak pintau genduzan, aurreko urtean Jorge Rubio artista bilbotarrak irakatsitako gauzak kontuan hartuta.

Plastikoa itsatsi genduzan atal guztiak.

Inauterietan arte lanen museorako prest egon zan.

Orain eskola barruko horma baten itsatsita dago guztiok ikusteko eran.

AGENDEA

APRILAK 15

AREATZA

Ludotekea goizez zabalik hilaren 25era arte. 11:00etatik 13:30era arte.

"Argazkigintza eta tratamendu digitala ikastaroa". Izena udalarekin emon apirilaren 15era arte. Gixienez 6 persona eta 12 gehienez. 45 euro. Irakaslea Josu Trueba, Bo5tok Photo Agency-ko kidea.

IGORRE

"Ingurugiroaren parte izan" izeneko argazki lehiaketara martxan.

Apriletik bagiera bitarteko ikastaroetan izena emoteko epea zabalik. Tai Chi, Patchwork, Argazkigintza, Diseinu grafikoa, Jantza afrikarrak, Literatura txokoa, Akrobazia aereoak...

LEMOA

11:00etatik 14:00etara, hilaren 25era arte Aste Santuko oporretan ludotekea zabalik.

APRILAK 23

BEDIA

17:30ean, "Irudien bidez, ipuina sortu" liburutegian.

DIMA

18:30ean, "Ipuin lapurra" txobongilo ikuskizuna Toni La Sal-en eskutik. Dimako liburutegian.

LEMOA

Lemoako III. Narrazio lehiaketan lanak entregetako atzen eguna.

APRILAK 24

IGORRE

19:00etan, Goi tensinoko linearen barri Urkuzuko txokoa.

APRILAK 25

IGORRE

Maiatzaren 25era arte, Miguel Sanz Etxebarriaren erakusketa. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

17:30ean VII. Emakumeen Arteko Topaketa Interkulturala. Gaia: Barrea bizitzarako baliabide gisa. Kultur Etxean.

19:30ean, hileko atzen barikua, preso eta

errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

18:30etik aurrera Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren Arratiako ekimena. Kultur Etxeko osteko plazan.

LEMOA

19:30ean, hileko atzen barikua, preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

ZEBERIO

20:00etan, hileko atzen barikua, preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

APRILAK 26

IGORRE

Kiñu Gaztetxearen aurkezpen jaiak. 13:00etan aurkezpena eta ondoren bisita gidatua gaztetxetik zehar. 14:30ean, bertso bazkaria, Gorka Lazkano eta Gorka Ostolaza "Potbis". 19:00etan, trikipoteoa. 22:00etan, kontzertuak: The Mockers, The Jeloskors, Zirkirik Bez.

22:00etan zinea.

LEMOA

10:30ean, "Hausnarketa ibiltaria" kulturgunetik abiatuta.

09:30ean, Harrobi Futbol Klubak antolatuta, Kimuen I. Harrobi Txapelketa. Arlonagusia futbol zelaian.

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, sari banaketa. Lemoaba (358 m).

APRILAK 27

AREATZA

08:30ean, AKKB antolatuta, Laudio mendietara urtekera: Santa Luzia-koba-Coikogane (702m)-Mugariluze(735m)- Kamaraka (797m)-bunker eta trintxerak-Santa Luzia.

09:30ean, Parkeak antolatuta, "Sendabelarrak" berbaldi-tailerra, Gabriel Vazquez eskutik. Parkeak. Gixieneko adina, 14 urte. Aldez aurretik izena emon behar da.

DIMA

10:00etan Ganadu eta Artisau Azokoa.

IGORRE

19:30ean, Gabriel Aresti Kultura Elkarteak *Gabrielen Lekuak*. Lasarte Aretxean.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, goizeko urtekera Arratiatik.



Bertso saioa maiatzaren 2an Diman

Dimako Udaleko Bardintasun Mahaiak bertso saioa antolatu dau Diman. Maiatzaren 2an izango da Gaztetxean 19:00etan eta bertan Rosi Lazkano, Onintza Enbeita, Uxue Alberdi eta Nerea Ibarzabal ibiliko dira kantuan, gai jartzaile beharrak Ainhoa Aranburuk egingo ditu. "Goxotasunean eta belaunaldi desbardinatuko andrak eukiko doguz kantuan. Betiko formatotik urtetea da helburua, gaiak eta giro berezia espero dogu. Gure ustean orain arte bertsolaritzak gizonen mundua bakarrik islatu dau, gizonen umorea, izatea, sentimentuak... Horregaitik Maialen Lujanbio heldu arte gure erreferente bakarrak gizonen mundu bat galdu dabela uste dabe, "50, 60, 70 urteko andra gitxi entzun doguz kantuan, horrerik buelta bat emon guran mundu hori ekarri gura dogu gure mundu eredu bakarrera!" dinoe.

APRILAK 28

LEMOA

Maiatzaren 9ra arte, "Zoru pelbikoa indartzea" (aurreratua) ikastaroan izena emoteko epea zabalik udalarekin. Ikastaroa maiatzaren 19an hasi eta garagarriaren 7an amaituko da.

APRILAK 29

BEDIA

17:00etan, tailerra: orri banatzaileak liburutegian.

APRILAK 30

IGORRE

19:30ean, *Oligopoly* dokumentala. 22:00etan, kontzertu akustikoa, Uluka Kiñu Gaztetxean.

LEMOA

11:30ean, "Titulazio barriak" berbaldia. Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

JB Eguzkitza Meabe ikastetxe 5. eta 6. mailako ikasleak Bookcrossing herrian zehar.

MAIATZAK 1

BEDIA

12:30ean Bedia-Lemoa martxa LABek antolatuta, herriko plazatik hasita. Ostein bazkaria Lemoako Gaztetxearen ondoan.

ZEBERIO

Austarik antolatuta, urtekera. Goñi, Beriain, Unanu.

MAIATZAK 2

IGORRE

19:30ean, monologoa + sandwichpote Merche Pichon. Kiñu Gaztetxean.

MAIATZAK 3

AREATZA

11:00etan plazan. Igoera bide zaharretik, Karpo-Urbiarte-Santikurutz. 12:00etan meza Mariano Ortuondoren orimenez. Bertsoak eta bistulariak. 13:00etan kopautxoa.

IGORRE

11:00etan "lanegune" Kiñu Gaztetxean.

Alderdikide Eguna. Ikusi programea 7. orrialdean.

ZEBERIO

Santikurutz jaiak.

10:00etan IV. Untzeta Mendi Lasterketa.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALGAI

Tabernarako kafeterea eta molinilloa salgai. Gaggia Nera markakoa. 600 eurotan. 619 728 188 (Unai).

AUTOA SALGAI

Daewoo Tacuma 5 atedun autoa salgai, 10 urte. 104.000 Km. Interesdunak 94 631 79 06 telefonora deitu (Iñigo).

HIZTEGI ENTZIKLOPEDIKOA

SALGAI

Lur Hiztegi Entziklopedikoko 10 tomo salgai, egoera onean, barriak legez. Interesdunak idatzi mezu bat e-mail honetara: l_laztana@hotmail.com.

FURGONETEA SALGAI

Nissan Primastar 2000dci 115 zaldidun furgonetea saltzean dogu, kanpinerako prestatua. 2009 urtekoa 120.000 km. Carry bike eta toldoa daukaz. Telefonoak: 629 624 688 eta 637 861 936.

EROSI

TRIKITIXEA EROSIKO NEUKE

Trikitixa esku soinua erosiko neuke. 653

716 691 (Jon Andoni) telefonora deitu.

DANERIK

INGELESEZKO ESKOLAK

Ingelesezko eskola partikularrak emoten dodaz Bedia eta Lemoan. Telefonoa 637 754 981.

TXAKURRENTZAKO LEKU BILA

Nire txakurrak eukiteko leku txiki bat topetan nabil Igorren (680 518 473).

TRASTELEKU BILA

Trasteleku bila nabil. Merkea, 30 euro inguru. Interesdunak deitu 656 742 768 (Bego) telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:


1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Gabrielen lekua* ikuskizunerako.

Nuria Korta (Igorre)
Ganzabal Mendi Taldea (Lemoa)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Cuando todo esta perdido* filmarako.

Amaia Astondoa (Areatza)
Maite Bernaola (Artea)



g Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 11


urte eta

ehundaka

lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA


1.- Antzeko. 2.- Letra bat. Begietatik dariola. 3.- Oinarrizko lau odol taldeetako bat. Itsasargi. 4.- Txakur-amesa. 5.- Oxigenoa. Birritan, umeen berbetan, ibili. Azken letra. 6.- Hilketari. 7.- Bular. Erbioa. 8.- Apaiz. Bat erromatar. 9.- Garestitu.

GOITIK BEHERA

1.- Giltz. Tik..., erlojuaren hotsa. 2.- Mila erromatar. Parea. Ene! 3.- Zintzo. Ume jaiobarrak eukiteko trapu. 4.- Babestu. 5.- Oparoa. Errepetiduta, kontuz. 6.- Ibxura. Musika notea. Uranioa. 7.- Guzti. Zotz.



Topau ezagunak diran zazpi super heroiren izenak.



AKI MI KO

Iman Olatu



Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Pinturas Anatia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Orre
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48110 Igorre (Bizkaia) Telefono: 94 673 64 25

NAIARA HORTZ KLINIKA
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igodo
94 631 52 26

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Telefono 649 86 95 36

sem
Gogoratu leku barrian gagozala
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Telefono: 94 631 92 94 • semmoda@hotmail.com

AKITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTRATUAN
ONDASUN HIGEEZINEN
ASIGURUTAN
Belles Arta, 3. Floor. 94 673 71 61 - Fax: 94 673 64 61 - 48140 IGORRE

AKESOLO, S.A.
GARRAIODAK, NEUMATIKODAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Telefono: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

axular
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.l.
CONSTRUCCIONES
LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIODAK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK
Iturriotz barrena 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseekin.com

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta eskuratzeko zain ordoraz
Garbe, 10 - 48140 Igodo (Bizkaia)
Telefono: 94 631 36 31 Fax: 94 673 70 80
e-posta: unozaku@eskola.net

JOSUNE MUÑOZ

"Euskal komikiaren historia aldizkakoa da"

Aspaldi ez dala, Areatzako Emakume Foroak ekarrita Josune Muñozek komiki femeninoaren gaineko berbaldia emon eban. Gerotxoago, AKKBk antolatutako tailer bat emon eban Ainara Aspiazu "Axi" k. Komikiak interes handia sortzean dau kultura munduan aspaldi honetan, gurean be bai.

Josune Muñoz (Bilbo, 1967) euskal filologoa da eta literatur ikerketan eta formakuntza feministan egiten dau behar. 2004an Skolastika, andrazkoak egindako literatura ikertzeko eta irakasteko topagunea ipini eban martxan. Atzen urteotan andrak sortutako komikiak dabil ikertzen.

Erredakzioa**Momentu onak bizi daz orain komikiak, ezta?**

Bai, bizkundera izan dau komikiak. Urteetan, hamarkadetan komikia nahiko beheraldian egon da. Kultura holako mobimentuak gertatzen dira eta askotan, komikiaren kasuan, barbarako, onerako izaten dira. Ze krisialdi horretan, momentura arte gertatutakoa aztertze eta sortzaileak autokritika egiteko balio izaten dau.

Komikian demaseko sexua, sexismoa eta errepikapenak egon, eta komiki barrian hori guztia

beste era baten emoten da. Horri gehitu behar jako andren lan aberatsa, anitza eta erakargarria.

Zergaitik bizkundera hori?

Batetik, andrak goi mailako formakuntzara heltzeako aukera izan dabelako. Kontuan izan androk unibersidadeetatik eta Arte Eskoletatik kanpo geratu garala mendeetan eta hamarkadetan. Eta, kanpoko andren lana be ekarteko aukera egon da: Japonian andra gazteentzako, nerabeentzako sortzean dan manga sentimentala, kasurako; baina lan horrek eragin handia izan dau eta komikigile barriak ekarri ditu. Gai-

nera, hamarkada honeetan zehar, komiki feministea mantendu da eta gailendu diran hainbat andra komiki feminista horretatik datoz. Gehitu beharko geunkez egile barriak, betiko egileak orain beste era baten hartzean diranak, Japoniatik datorren eragina daukienak eta, aurreko hamarkadetan lanean irauteko aukera, balioa, tresneria izan dabenak. Horren oihartzuna Purita Camposek edo Ana Mirallosek jasoten dabe.

Lehen esan dozu bizkundera honen aurretik errepikapenak gertatzen zirala, zer esan gura dau horrek?

80ko hamarkadan, mendebaldeko komikian, irudiak, teknika barriak eta kolorearen erabilera ikaragarriak ziran, baina istorioak oso errepikakorrek ziran: behin eta barriro kontetan ziran istorio bardina edo antzekoa, oso bariante gitxigaz. Eta andrentzat sano komiki desatsegina zan, sano pornografikoa. Krisialdiaren hasikera zan eta horixe zan komikia saltzeako atxakia eta arazoia.

Euskal komikirik egon badago?

Bai, baina ondino txikia. Euskal komikiaren historia aldizkakoa da. Gure hizkuntza eta historia eta politikearen arabera, beinke! Euskal bizkundera, komikia bagoan. Gure komikiak beti izan dau lehenago helburu politiko, linguistiko edo historiko bat, artistiko edo berezkoa baino. Orain sortu dan komiki barria da lehenengoa Euskal Herrian komikia bera baino beste helbururik ez daukana. Lehen gehiena aldizkarietan agertzen zan, komiki laburra zan, batzuetan tirak, beste batzuetan istorio sasi-

**ikusten dozu euskal literatura?**

Ni munduko literaturan aditua naz. Nahiz eta barrura begira, gure literaturaren gaineko idea bat izan, munduko literatureagaz alderatu ezker, idea hori batzuetan beste bat suertatzen da. Gure historia, munduko literatureagaz bat dator, bardina da. Hau da, androk inon ezin izan dogula ondo, ganoraz, gurean egon. Baztertuak izan gara politikan, ekonomian eta kulturean. Baina gure agerraldiak hor dagoz, beti egon gara hor. Beti harritzen nau androk historia eta geografian zehar, literaturan egoteko eta mantentzeko, eta behin eta barriro sortzean egoteko adirazo dogun abilezia. Benetan. Zelan egin deusagun aurre!

Eta euskal literaturan bardin. Baldintza ekonomiko, politiko eta jentartekoak normalizau edo bigundu edo erreztatu diranez, mantenduten gara. Egon, beti egon gara, baina kontua da zelan iraun kontra dagoan sistema baten. Eta hori, zoritxarrez, ez da amaitu. Literatura sano sistema misoginoa izan da; eta matxista izaten jarraituten dau. Gure betiko eta oraingo erronea mantentzea da, irautea, eta gure lan literarioa kanon eta manualetara pasetea. Ze egon bagagoz eta kalean gagoz. Baita be liburu zerrendetan, salduenen arten, berbaldietan... Baina gero, ez gagoz kanonetan, ez manualetan. Hori lortu arte, behin eta barriro, etenbarik, gure historia birsortzen egongo gara. Literaturan gure presentzia geratu behar dan lekuetan geratu behar da, gure iragana ez galtzeako: orain arte egin dogun literatur lana galdu ez daiten.

komikoak edo kostunbristak. Era horretakoak.

Habekomik agertu arte, oso komiki gitxi egon.

Habekomik-ekoa behintzat oso komiki ona zan, ezta?

Bai. Eta Ipurbeltz, Kili-kili umeentzako... baina beti komikia bera ez dan helburu bat dago eta helburu nagusi hori lortzeako sortzean da komikia. Hasikera baten umoristikoa eta politikoa zan; geroago, pedagogiko eta linguistikoa... Zorionez, Habekomik-en kasuan oso komiki ona. Eta hori izan zan bidean geratu zan euskal komiki sendo bat sortzeako aukera, orain gitxi arte berreskuratu ez dana.

Andren presentzia oso murrizta izan da. Anparo Akarregi gailendu zan Habekomik-eko garai horretan 80ko hamarkadan. Orain, zorionez, andra batzuk badagoz hor, Ainara Aspiazu "Axi" dago, tira zein istorio laburrak egiten dituan; Maite Gurruixaga dago, orain *Habik* eleberri grafikoa sortu dauana. Andra idazle batzuk komikietan ipinteko istorio laburrak eskeintzen dabiz... hastapenetan baino ez dago euskal komikia.

Komikiaz aparte, munduko literaturan be aditua zara, zelan

10 urte Igorren

ARGALTZEKO PROGRAMA PERSONALIZAUAK

Bikini operazinoa zuretzat ezinezkoa bada, ez gehiago pentsau, eta erdu! **Salo bakotzeko 39,90 eurotik hasita.** Edo 3 kuotatan ordaintzeko, planing osoa.

- Dietetika eta nutrizinoa
- Lipomassage LPG
- Kabitazioa
- Irrati-frekuentzia
- Presoterapia Ballancer
- Bibrazino-plataforma
- Eskuzko teknikak

Hartu zure zitea **94 631 91 20** telefonoan
Sabino Arana, 22 behea 48.140 Igorre